

184. FITXA BIZKAIA – Bizkaiko entitate lokalek 2026rako sustaturiko herri eta gizarte partaidetzarako proiektuetarako dirulaguntzak.

Nori zuzendua: Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriak eta mankomunitateak.

Sarbide-esteka: [Hasiera - Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa](#)

Erreferentziazko araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiaren 125/2025 FORU DEKRETUA, abenduaren 11koa, zeinaren bidez onartzen baitira 2026rako dirulaguntza foralen oinarri arautzaileak eta deialdia, Bizkaiko entitate lokalek sustaturiko herri eta gizarte partaidetzarako proiektuetarako](#)

Eremuak: Herri- eta gizarte- partaidetza

Zenbatekoa: 400.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2026/01/26tik 2026/02/13ra arte, 13:30ean

Laburpena

Deialdi honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiak herritarren eta gizartearen parte-hartzearekin duen konpromisoa bultzatzea, Bizkaian parte-hartze handiago eta hobeago bati bide emateko.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko talde, kolektibo, eskualde eta udalerrietara hurbiltzea partaidetza-espazioak eta -tresnak.
- Partaidetza tresna dinamizatzailea izatea, konponbide, adostasun eta lankidetza berriak ekarriko dituen Bizkaiko garapen iraunkorrean aurrera egin ahal izateko
- Gizarte zibila sektore publikoaren zereginean inplika dadin erraztea, gizarte-kohesioa bultzatuz.
- Ekintza politikoak eta administratiboak eraginkortasun eta legitimitate handiagoa izan dezaten laguntzea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Herritarren eta gizartearen partaidetzarako proiektuak hiru jarduketa-arloren bitartez jarriko dira praktikan:

1. arloa: Herri- eta gizarte-partaidetzako prozesuak garatzea proiektuan sarturiko udalerriaren eta/edo

mankomunitatearen garapen jasangarrirako garrantzitsuak diren eremuetan.

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

1. Aurretiko analisi-lanetarako eta partaidetza-prozesuak diseinatzeko, antolatze eta dinamizatzeko laguntza teknikoaren gastuak.
2. Partaidetza-prozesuen garapenari lotutako gastu logistikoak.
3. Partaidetza-prozesuen komunikazio-gastuak, barnean harturik diseinua, inprimaketa eta erabiltzen diren materialak banatzeko kanalak.
4. Partaidetza-prozesua diseinatu aurreko analisi-lanen ondoriozko gastuak.

2. arloa: Herritarrek eta gizarteak parte hartzeko prozesuak garatzea, herritarren eta entitate lokalaren arteko harreman digitala sustatzeko.

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

1. Partaidetza-prozesuak diseinatzeko, antolatze eta dinamizatzeko laguntza teknikoaren gastuak.
2. Partaidetza-prozesuen garapenari lotutako gastu logistikoak.
3. Partaidetza-prozesuen komunikazio-gastuak, barnean harturik diseinua, inprimaketa eta erabiltzen diren materialak banatzeko kanalak.
4. Partaidetza-prozesua diseinatu aurreko analisi-lanen ondoriozko gastuak.

3. arloa: Herritarrek eta gizarteak parte hartzeko gune eta organo formalak sortu, biziberritu eta hobetzeko proiektuak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

1. Herri- eta gizarte-partaidetzarako gune eta organo formalak aztertze, diseinatzeko, antolatze eta dinamizatzeko laguntza teknikoaren gastuak.
2. Herri- eta gizarte-partaidetzarako gune eta organo formalak aztertze, diseinatzeko, antolatze eta dinamizatzeko laguntza teknikoaren gastuak.
3. Herri- eta gizarte-partaidetzarako gune eta organo egonkorak aztertu, diseinatu, antolatu eta dinamizatzeko prozesuen komunikazio-gastuak. Barnean harturik diseinua, inprimaketa eta erabiltzen diren materialak banatzeko kanalak.
4. Proiektua diseinatu aurreko analisi-lanen ondoriozko gastuak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz laguntzeko eskatzen diren proiektuak **2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra** bitartean garatu eta gauzatu beharko dira (biak barne).